


EUSKARA

16 URTEZ AZPIKO KIROL ENTRENAMENDUETAN
ETA JENDAURREKO EKITALDIETAN



**UROLA
GARAIA**

**2021-2022
DENBORALDIA**

2 Euskara Urola Garaiko kirolean

Herritar agurgarriok:

2019-2020 denboraldian egin bezala, katalogo honen bidez, 16 urtez azpiko euskarazko kirol eskaintza erakutsi nahi dizuegu, baina horren aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu kirol elkarte eta udal zerbitzu guzti-guztiei – euskaraz egin ala ez- Urola Garaiko herritarroi egiten dizuzuen ekarpenagatik. Eskerrik asko, benetan!

Alabaina, balioa eman nahi diogu talde askotan euskararen alde egiten duzuen lanari, eta hori ere errekonozitu nahi dugu Mankomunitatetik.

Katalogoan, entrenamenduak euskaraz jasotzen dituzten taldeak agertzen dira honako ordenean: kirol jarduera (alfabetikoki), herria, taldea eta generoa. Taldea, kategoria edo adinaren arabera bereizi ditugu, erreferentzia modura: aurre-benjaminak 7-8 urte, benjaminak 9-10 urte, alebinak 11-12 urte, infantilak 13-14 urte eta kadeteak 15-16 urte.

Aurten, baina, zerrenda hori herritarrez eta istorioz osatu nahi izan dugu, eta Goierriko Hedabideen laguntzari esker, zortzi talderen egunerokoa gerturatu nahi izan dizuegu gehigarri modura.

Ikusten duzue, euskararen erabileran egiten duzuen ekarpena, Mankomunitate mailan ere lagundu nahi dugu eta horretarako lanean ditugu udaletako euskara zerbitzuak.

Urola Garaiko Lehendakari gisa, zuen ekarpen bakoitza eskertu nahi genuke.

Adeitasunez,

Estimadas familias:

Tal y como hicimos la temporada 2019-2020, con este nuevo catálogo queremos mostrar vuestra oferta deportiva en euskera para los menores de 16 años, pero, antes de nada, nos gustaría, agradecer a todas y cada una de las asociaciones deportivas y servicios municipales su aportación a la sociedad de Urola Garaia. ¡Gracias a todas y a todos!

Pero, además, queremos poner en valor el trabajo que hacéis a favor del euskera en muchos equipos, y queremos reconocerlo desde la Mancomunidad.

En el catálogo encontraréis a los grupos que reciben los entrenamientos en euskera en el siguiente orden: actividad deportiva (alfabéticamente), localidad, categoría y género. Hemos distinguido las categorías, a modo de referencia: pre-benjamín 7-8 años, benjamín 9-10 años, alevín 11-12 años, infantil 13-14 años y cadete 15-16 años.

Pero, este año, hemos decidido ilustrar el catálogo con historias y experiencias de algunos equipos, y gracias a la colaboración de Goierriko Hedabideak, nos hemos acercado al día a día de ocho de ellos.


Como veis, nosotros también queremos contribuir a la aportación que realizáis en el uso del euskera, desde la Mancomunidad contamos con los servicios municipales de euskera.

Como Presidente de Alto Urola, quisiera agradeceros cada una de vuestras aportaciones.

Atentamente,

Urola Garaiko Mankomunitateko Lehendakaria

Jon Luqui Albisua



Edozein zalantza / Cualquier aclaración:



**Ezkio-Itsasoko
Udala**
Tel.: 943 721303
udala@ezkio.eus



Legazpiko Udala
Euskara Zerbitzua
Tel.: 943 737030
iurzelai@legazpi.eus



















Urretxuko udala
Urretxuko Udala
Euskara Zerbitzua
Tel.: 943 038088
euskera.ur@urretxu.eus



Zumarragako Udala
Euskara Zerbitzua
Tel.: 943 729153
euskara@zumarraga.eus

16 urtez azpi euskaraz entrenatzen dutenen zerrenda: 2021-22 denboraldia

ATLETISMOA		Urola Garaia. Goierri Garaia Atletismoa	Kadeteak (N/M) Infantilak (N/M) Alebinak (N/M) Benjaminak (N/M)
		Urretxu - Zumarraga. Argixaoko atletak	Infantilak (N/M) Alebinak (N/M) Benjaminak (N/M)
ESKUBALOIA		Legazpi. La Salle	Eskola (N) Kadeteak (M)
		Urretxu - Zumarraga. Urola E. K.	Infantilak (N) Eskola (N/M)
FUTBOLA		Legazpi. Ilintxa	Infantilak (M) Infantilak, txikiak (M)
		Urretxu - Zumarraga. Urola KE	Kadeteak (N) Infantilak, ohorezko maila (M) Infantilak, txikiak (M) Alebinak (M)
GIMNASIA ERRITMIKOA		Urretxu. Urretxu	Handiak (12-16 urte) (N) Erdikoak (10-11 urte) (N) Txikiak (5-9 urte) (N)
IGERIKETA		Legazpi. Igeriketa Legazpi	Infantilak (N/M) Alebinak (N/M) Benjaminak (N/M) Txikienak (N/M)
JUDO - JIU JITSU		Legazpi. Judo Legazpi / JiuJitsu Zumarraga	Talde bakarra (N/M)
		Zumarraga. Judo Legazpi / JiuJitsu Zumarraga	Talde bakarra (N/M)
PILOTA		Ezkio. Ezkioko Pilota	Talde bakarra (N/M)
		Legazpi. Legazpiko Gazteak	Talde bakarra (M)
		Urretxu. Goierri K. E. Pilota	Alebinak (M) Benjaminak (M) Aurre-benjaminak (M)
SASKIBALOIA		Legazpi. Andraitz Saskibaloia	Eskola (N/M) Kadeteak (M) Infantilak, txikiak (M)
		Urretxu - Zumarraga. Goierri Saskibaloia	UGLE, kadeteak (N) BuenBokado, kadeteak (N) Oxykor, kadeteak (N) Infantilak (N) Goierribus, infantilak, txikiak (N) Alebinak (N) Benjaminak (N/M) Al. Aleman, kadeteak (M) Inmo. Etxarre, infantilak 2008 (M) Desvill. Publicidad, infantilak, txikiak (M) Frutas Martinez, alebinak (M)
TXIRRINDULARITZA		Urretxu - Zumarraga. Goierri Txirrindularitza	Infantilak (N/M) Kadeteak (M) Alebinak (M) Benjaminak (M)
VOLEIBOLA		Urretxu - Zumarraga. Goierri Voleibol	Kadeteak (N)

«Zorionez, [euskara] jada barneratu dugu»

La Salle eskubaloiko kadete gizonen taldekideek diote kalean ere euskaraz aritzen direla. Kantxan ere euskaraz jardutea egiten zaie naturalena. «Pentsatu gabe egiten dugu». Kontuak kontu, Manolo Mugerzak, entrenatzaileak, euskaraz hitz egiteko eskatzen die jokalariei. «Hasieran euskaraz egitearen garrantzia azpimarratzen nien. Zorionez, jada barneratu dugu». Zer hobetua badagoela dio, halere. «Entrenamenduetan, autobusean... euskaraz aritu arren partida hastean gaztelaniara erraz jotzen dugu. Nik uste, hiztegi tekniko gaztelaniaz ikasi dugulako dela».

Hiztegi tekniko gaztelaniaz erabiltzeko joera, alde batetik, telebistari egotzi diote. «Bidasoaren eta Bera Beraren Europako partidak ETBn euskaraz ematen dituzte, baina gainera-

ko partidak ezin dira euskaraz entzun. Selezioen arteko txapelketak, adibidez». —Elkarrizketa hau egin zenean gizonen Europako txapelketa jokatzen ari ziren eta emakumeen munduko txapelketa amaitu berri zen—. Entre-

«Nahiz eta euskaraz jakin eta egin, gaztelaniaz barneratu genuen eskubaloia»

Manolo Mugerza
La Salle eskubaloia

entrenatzailearen jarrera ere garrantzitsua dela diote Mugerzak eta jokalariek. «Hamahiru urterekin hasi nintzen eskubaloian jokatzen. Orduan beste garai batzuk ziren, euskara guxtiago en-



tzuten zen orokorrean. Eskubaloian, baita ere. Nire lehen entrenatzaileak, adibidez, gaztelaniaz hitz egiten zuen soilik. Orduan, guk, nahiz eta euskaraz jakin eta egin, gaztelaniaz barneratu genuen eskubaloia». Era berean, jokalaria helduagoen hizkuntza ohiturak garrantzitsuak direla diote, beraiek ere gazteagoen erreferente direlako eta behetik datozen gazteek zaharragoen ohiturak barneratzen dituztelako. Zaha-

rragoek ere euskara erabiltzen dutela diote.

Aurkariak, euskaraz

La Salleko mutilek lehen hitza euskaraz egiten dute epaileekin eta aurkariekin. Normalean, euskaraz erantzuten dietela diote. Aurkariak nongoak diren, gehiagotan edo gutxiagotan. Gipuzkoan zehar jokatzen dute. «Orokorrean, eskubaloi mundua euskalduna dela esango nuke», dio Mugerzak.

«Betidanik izan da horrela pilotan»

Legazpiko Urbeltz frontoian euskara da nagusi. «20 bat gazte dabilta denboraldi honetan, benjamin aurrekoetatik helduetara arte. Denek euskaraz egiten dutela esango nuke», dio Ander Perezek, Legazpiko Gazteak pilota elkartearen arduradunetako batek. «Legazpiko eta pilota munduko hizkuntz errealitatea ikusita

arraoa izango litzateke gu gaztelaniaz hizketan aritzea», gaineratu du. «Betidanik izan da horrela pilotan». Klubak ia 20 urte daramatza Legazpiko gazteei pilotan jokatzen hasteko aukera eskaintzen.

Pilota eskolako kideek euskara eremu guztietara eramana nahi dute. Horregatik, azalpenez gain, ohar guztiak edota le-

hen hitza euskarazkoak izateko konpromisoa hartu zuten. «Gurasoek euskarari garrantzia ematen diote eta hori baloratzen dute. Badakite pilotara ekarriz gero beraien seme-alabak euskaraz egingo duela, hemen behintzat».

Erreferenteak

Talde batek baino gehiagok azpimarratu du euren kirola euskaraz jarraitzeko zailtasuna. Pilotariak zorte hori, behintzat, badute. Iruditerian pilota Euskal Herriarekin eta euskaldunekin loturako kirola denez jendeak erraz jotzen du euskarara.

«Aurkariak lehen hitza euskaraz egiten diegu. Beraiek guri, ere bai».

«Badakite pilotara ekarriz gero beraien seme-alabak euskaraz egingo duela»

Ander Perez
Legazpiko Gazteak

Klubaren lanari esker, pilotak presentzia hartu du Legazpin. Herriko Binakako txapelketa,

«Zaila da gaztelaniaz imaginatzea»

Ezkioko frontoia berezia da. Ezker pareta beharrean, eskuin pareta du. Pilota eskolako haurrei, baina, ez die asko axola. Gogotsu ari dira. Eta euskaraz. «Umeek frontoitik kanpo ere euskaraz hitz egiten dute. Propio etortzen da», azaldu du Jose Mari Gabilondo Milletek, pilota eskolako arduradunetako batek. Hiru talde dituzte eta hiruak euskaraz aritzen dira. «Zaila da pilota eskola gaztelaniaz imaginatzea. Ezkio herri euskalduna da eta oso arraroa litzateke frontoian gaztelaniaz aritzea».

Pilota ere bertako kirola izanik, euskaraz hitz egitea errazagoa dela uste du. «Aurkariek ere euskaraz egiten dute», hasi da azaltzen Gabilondo. «Aranzakoeekin (Nafarroa)kidetzea egiten dugu, besteak beste. Beraiek ere euskaraz hitz egiten dute, beste euskalki batean. Gure haurrentzat aberasgarria ere bada, beste euskalki batzuk entzuten dituztelako».

Gabilondok dio pilota eskola ez dela soilik pilotan ikasteko. Bestelako irakaspenak barne-



ratzeko ere balio du. Horregatik, euskara oinarria dela eta halako detaileak zaindu egin behar direla defendatu du.

Erreleboa

Gabilondo ez da eskolako arduradun bakarra. Taldean lan egiten dute, eta jende gaztea-

«Umeek frontoitik kanpo ere euskaraz hitz egiten dute. Propio etortzen da»
Jose Mari Gabilondo
 Ezkioko pilota eskola

goa sartu da aurtien katean. «Adin batetik aurrera pilotan jokatzeko jarraitzeko inguruko herrietara joan behar izaten dute, baina taldearekin harremana izaten jarraitzea nahi dugu». Gazteenek ere euskaraz irakasten die etorkizuneko pilotari.

gaztetxoentzako binakako eta banakako txapelketak eta afizionatu eta profesional mailako pilotarien partidak antolatu dituzte. Pilotari federatuak, berriz, Euskal Herriko txapelketa ezberdinetan ibili dira. Lan horren guztiaren esker gisa, Olaria saria jaso zuen 2013an.

Legazpiko Gazteak klubeko pilota saila, azkenik, herriko bizitzan murgilduta dago eta, besteak beste, Kirola Elkarrekin jardunaldian, sukaldari lehaketetan, Euskaraldian eta Korrikan parte hartu izan du. Beti euskararen aldeko ekintzetan. lehen lerroan.



«Euskarak erakargarriagoa egiten du»

Urretxuko Gimnasia Erritmiko-ko taldeak hiru multzo ditu aurtentzen, adinaren arabera banatuta. Aurdunak ere hiru dira: Ainhoa Aranbarri, Ainhoa Callejo eta Lourdes Maioz. Hirurek euskaraz gidatzen dituzte gazteak. «Hamabi urte daramatzat entrenatzaile lanetan, eta aurretik ere gimnasia munduan ibilitakoa naiz. Beti egin dugu euskaraz», azaldu du Callejok.

Gimnasia munduan arnasmune dira, Callejoren arabera ez baita oso eremu euskalduna. Euskalgimen –Euskal Herriko gimnasia artistikoko txapelketa nagusia– bi hizkuntzak erabiltzen diren arren epaileen kodigoa gaztelania hutsean dago. «Horrek mugatu egiten gaitu», dio. Beraiek, baina, ikuskizunak egitera mugatzen dira, lehiatu gabe.

Callejok uste du gurasoek euren haurrak gimnasia apun-

tatzean ez diotela erreparatzen zein hizkuntza erabiltzen den, baina euskara erabiltzea beti dela «gehigarri» bat. «Erakargarriagoa egiten du».

Callejok gimnasia garrantzitsuena gorputzarekin adie-

«Haurrek ere [euskarazko musika] eskatzen dute. Goazen, asko. Klasikoak ere bai»
Ainhoa Aranbarri
Urretxuko Gimnasia Erritmikoa

raztea dela, ez hitzekin. Musika erabiltzen dute laguntzeko. «Melodikoa ez denean euskaraz izaten da», aipatu du Aranbarrik. «Haurrek ere eskatzen dute. Goazen, asko. Klasikoak ere bai, Ken 7renak adibidez...».



«Eskubaloia bada euskara tokia»

Eskubaloian geroz eta gazteago hasten dira neska-mutilak. Oinarrizko mugimenduak errazago barnatzen omen dituzte. Are errazago, euren hizkuntzan egiten badute: euskaraz.

Samuel Segade eta Urtzi Lopez dira Urola Eskubaloia eskolako monitoreak. «Hona ikastera etortzen gara, eskubaloiaz eta beste hainbat balorez. Ga-

rarrantzitsua da hizkuntza ohiturak zaintzea eta euskaraz hitz egin behar dela barnatzea», dio Segadek. «Jokalari batzuk hasieran gaztelaniaz galdetzen zituzten gauzak eta guk euskaraz erantzuten genien. Jada ikasi dute euskaraz hitz egin behar dutela eta hala ibiltzen dira». Hamar urteren bueltan dabil-tzan dozena bat haur dabil-tza

eskolan. Gustura joaten dira, saiorik ez dagoenean ere eskatu egiten baitute. Seinale ona. Entrenatzaileak ere pozik daude.

«Euskara tokiekin lotzen dugu», hasi da entrenatzailea. «Nik, kuadrillan, ia ez dut euskararik egiten; lanean, bai. Ohitura kontuak. eskubaloia bada euskara tokia», borobildu du.

Urola Eskubaloia-euskara lotura egiteko entrenatzaileen jarrantzia nabarmendu du Segadek. «Urola guztiak ez du euskaraz egiten. Entrenatzaileen arabera da». Segadek, esaterako, denboraldi batzue-

tan euskara erabiltzen zuen eta beste batzuetan ez, nahiz eta taldekideak berdinak izan.

«Hona ikastera etortzen gara. Garrantzitsua da hizkuntza ohiturak barnatzea»
Samuel Segade
Urola Eskubaloia

Gaztelaniaz egiten zutenetan euskaraz ez zekien entrenatzaileak egokitu zitzaizkien.

Saskibaloia eta mintzapraktika, batera

Euskara entzuten da baloien burrunbaren artean. Goierri Aluminios Aleman kadete errendimendu mailako taldea ari da entrenatzen: jokari bakoitza, baloi batekin, saskitik saskira joan behar da eta auzartzen den tokitik, bota. «Barrura! Hirukoa!», dio batek. Lukas Lopez entrenatzaileak denak bildu ditu segidan, eta beste ariketa bat azaldu die. Honek ere, euskaraz.

«Sekula ez dugu hausnartu zein hizkuntza erabili. Euskaraz egiten dugu ohitura dugulako, saskibaloian eta kalean», azaldu du Lopezek. Datorkien modura hitz eginda, naturaltasunez aldatzen dute gaztelaniara. «Errieta gaztelaniaz egiten diet», esan du erdi txantxetan.

Hiztegi teknikoaren erabiltzerakoan ere, bereziki, gaztelaniara jotzen dute. «Horrela ikasi dugu, telebistagatik», diote jokalariek. Euskal Telebistan saskibaloia emanaldiak berreskuratzeko eskatu dute.

Lopezek, halere, telebistari baino garrantzi handiagoa ematen dio entrenatzaileari.



«Nik beti eduki ditut euskaraz zekiten entrenatzaileak. Horregatik ere egiten dugu orain euskaraz», aitortu du. Entrenatzaileak erreferente direla uste du, jokari zaharragoak bezala.

Kuadrilla

Taldean duten giro ona nabarmendu dute. Kuadrilla bakarra

«Betik eduki ditut euskaraz zekiten entrenatzaileak. Horregatik ere egiten dugu»
Lukas Lopez
 Goierri saskibaloia

direla dio. Hasi zirenean baina, bakoitzak bere lagun taldea zuen. Batzuek euskaraz egiteko joera gehiago zuten besteek baino. Zorionez, denak bateratzean euskarari eusten diote. Gainera, euskara horrenbeste erabiltzen ez zutenek aukera bat lortu dute. Saskibaloia mintzapraktikarako lekua ere bada.

Jokatu ere egiten dute, Gipuzkoako gainerako eskolen aurka: Elgoibar, Tolosa, Zumai... tokien adibideei jarraituz, euskara tokiak edo herriak direla aipatu du Segadek. Horregatik, aurkariekin ere euskaraz hitz egiten dutela. «Eskubaloia eremu euskalduna dela esango nuke, gutxi gorabehera. Taldea nongoa den asko notatzen da», dio. Epaileei ere lehen hitza euskaraz egiten diete.

Segadek azpimarratu du taldeak gizartearen isla direla. Taldeak euskaldunduta gizarteak euskaldundu daitekeela sinetsita dago.



«Lehen hitza, beti, euskaraz»

«Lehen hitza, beti, euskaraz». Urola futbol taldeko Ainhoa Plagarok eta Garazi Merino entrenatzaileek argi dute. «Entrenatzaileak baino gehiago hezitzaileak gara. Futbolaz harago beste balore batzuk eraman behar dituzte etxera», gaineratu du Plagarok. Hamahiru eta hamalau urte bitarteko neska gazteek osatzen dute taldea. Hemezortzi dira, nahiz eta batzuk soilik entrenatzera joaten diren.

Talde berria da, azken urteetan beheko mailetatik gazte asko iritsi baitira. «Bakoitzak bere hizkuntza ohiturak ditu. Batzuk erraztasun handiagoa dute besteek baino. Guk guzti guztiei azalpenak euskaraz

ematen dizkiegu». Aurkariekin eta epaileekin ere lehen hitza euskaraz egiten dute. «Herriaren arabera ere euskaraz erantzuten dute», aipatu du Merinok. «Futboleak nahi baino gehiago entzuten da gaztelaniaz», atsekabetu da.

Biak jokalarik izan ziren aurretik eta denetariko esperientziak bizi izan zituzten. Orain euskaraz hitz egitea gauzak onerako aldatzen ari diren seinale dela uste dute. Ea bilakaez ez duen etenik.

Kohesioa

Adin eta eskola ezberdinetakoz izan arren «seguituan» hartu zuten talde izaera. Hala, gehiago gozatzen dute entrenatzaile-



leen hitzetan. «Eta, azkenean, hori da garrantzitsuena».

Ikusi dute euskaraz gozatu daitekeela eta eremu guztiara helden dela, baita ere kirolez. Horri eustea da erronka, orain. Zelaitik irtetean euskaraz jarrai dezatela.

«Bakoitzak bere ohiturak ditu. Guztiei azalpenak euskaraz ematen dizkiegu»
Ainhoa Plagarok
Urola futbola

Euskararen, gerriko beltzak

Judoa XVII. mendean sortu zen, Japonian. Horregatik, teknikek japonierazko izenak dituzte: *nage-waza*, *katame-waza*, *atemi-waza*... euskaraz judoan aritzeko ez da arazoa. Legazpiko judo taldeko Asier Berasategik hala egiten du. «Azalpen guzti guztiak euskaraz ematen dizkiet. Berezik, gaztetxoenei». Lau urterekin hasten dira; amaitu, bakoitzak nahi duenean, ahal duen koloreko gerrikoarekin. Edo, *obi*-arekin

Berasategik Jose Manuel Paternain maisuak hasitako bideari jarraipena eman dio. Paternainek Legazpiko Judo taldea 1986. urtean sortu zuen. «Euskaraz ez zegoen horren hedatua

garai haietan. Taldean ere gutxiago egiten genuen». Euskaraz hiztunak eta eremuak bereganatzen joan ahala, judo ere iritsi zen. «Nik instintiboki egiten dut euskaraz, ohituragatik», dio Berasategik.

Ez da bakarrik ibiltzen. Jon Aldabaldetrek, Haritz Baztarririk, Jon Odriozola, Paternain bera... bidelagun ditu. Behar ere bai. Klubean, 100 judokatik gora dira. Gehienak, hamasei urtez azpikoak. «Eskola kirolean dabilzenekin den-dena egiten dugu euskaraz. Ez dago besterik», errepikatu du.

Hizkuntzanitzak

Zaharrenek hiru hizkuntza na-



«Eskola kirolean dabilzenekin den-dena egiten dugu euskaraz. Ez dago besterik»
Asier Berasategi
Judo Legazpi kluba

hasten dituzte euren saioetan. Ingelese ere aritzen dira. «Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako judoka bat dugu taldean. Euskaraz ikasten ari da, eta praktikatzeko erabiltzen du. Aldiz, besteek ingelesa finitzeko aprobetxatzen dute».